

# EBAZPEN-AKTA

## BILBAO EDITA 2023

### ARGITALPEN-PROIEKTUAK HAUTATZEKO DEIALDIA

Balorazio Batzordea 2023ko azaroaren 23an bildu zen, 09:00etan, "Bilbao Edita 2023" argitalpen-proiektuak hautatzeko deialdira epe eta forma egokian aurkeztutako 8 proiektuetatik guztira 5 proiektu hautatzeko, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraiturik. Hautaketa kategoriatan egin zen:

- A kategoriatan: 3.000 euroko 3 proiektu.
- B kategoriatan: 6.000 euroko 2 proiektu.

Batzordeko kideak Gonzalo Olabarria Villota (Arriaga Antzokiko ABko presidentea), Joseba Iñaki López de Aguilera Díaz (Bilboko Udaleko Kultura zuzendaria) eta Begoña Escribano Mendia (Musika-Música, BAS eta Gau Zuriko zuzendaria) izan dira, eta bilkurako idazkaria Ane Toyos Elorriaga (Kultura eta Gobernantza Saileko Aurrekontuaren Kontrolerako eta Kalitateko Negoziatuko burua).

Proiektuak hautatzeko, adierazle eta irizpide hauek ebaluatu ditu Balorazio Batzordeak:

- Kalitatea, interesa, bideragarritasuna, proiektuaren originaltasuna, egilearen ibilbidea: 27 puntu, gehienez.
- Liburuaren egilea Bilbon erroldatuta egotea proiektua aurkezten den egunean: 10 puntu, gehienez.
- Liburuaren edukia Bilbori buruzkoa edo hiriarekin lotura zuzena duten gaien buruzkoa izatea: 10 puntu, gehienez.
- Aldi berean paperezko eta formatu digitaleko argitalpena izatea: 3 puntu.
- Euskararen erabilera sustatzen laguntzea: 10 puntu gehienez, honela banaturik:
  - % 50 euskaraz eta % 50 gaztelaniaz diren liburu elebidunak: 5 puntu.
  - Euskara hutsezko liburuak: 10 puntu.

Balorazio Batzordeak kategoriatan bakoitzerako hautatutako proiektuak hauek dira:

- A KATEGORIA
  - DE CANTERA Y HIERRO PURO – Ediciones El Gallo de Oro SLU
  - ABECEDARIO BILBAINO - Ediciones El Gallo de Oro SLU
  - EL ESPÍRITU LIBERAL DE BILBAO Y LA MEMORIA DE LOS SITIOS, 1835-1937 – Incobi Diseño, Marketing y Publicidad SL

- B KATEGORIA
  - EL ENIGMA DEL KADUX EN BILBAO – Ediciones Beta III Milenio SL
  - ORGULLO DE BARRIO - Incobi Diseño, Marketing y Publicidad SL

Era berean, Balorazio Batzordeak, hautatutako proiekturen bat ezin izango dela egin aurreikusita, kategoria bakoitzean ordezeko hauek proposatu ditu:

- A KATEGORIA
  - BILBAO. 20 FAMILIAS DE COMERCIANTES EN EL SIGLO XVIII - Ediciones Beta III Milenio SL
  - LAS IGLESIAS PROPIAS DE BIZKAIA EN LA EDAD MEDIA- Ediciones Beta III Milenio SL
- B KATEGORIA
  - LOS POETAS CANTAN A BILBAO - – Ediciones El Gallo de Oro SLU

Eta hala jasota gera dadin, Bilbon, 2023ko azaroaren 23an

Gonzalo Olabarria Villota jn.  
Arriaga Antzokiko ABko presidentea

Iñaki Lopez de Agileta jn.  
Bilboko Udalaren Kulturako zuzendaria

Begoña Escribano Mendia and.  
Musikako, BAsoko eta Gau Zuriko zuzendaria

Ane Toyos Elorriaga and.  
Kultura eta Gobernantza Saileko Aurrekontuaren Kontroleko eta  
Kalitateko Negoziatuko burua